

Orkeia



HAZPARNEKO
ZAPATAGINTZAREN
HISTORIAREN
URRATSETAN

Bréchoire-Madré lehengo lantegia

Egilea:
Hazparneko Historia Batzordea

ORKEIA

1. Zenbakia-2022ko ekaina

Obratzea: Hazparneko Historia Batzordea:

Armand Bidart
Beñat Çuburu-Ithorotz
Marie-Françoise Durruty
Txomin Heguy
Xavier Larre
Marie-Jo Vigié

Dosieraren moldaketa: Txomin Heguy

Euskarazko bertsioaren zuzentzailea: Maialen Heguy-Lucu

Lantegi nagusien eta langile auzoaldean mapen obratzea:

Jean-Baptiste Dardel
Xavier Larre

ORKEIA logoaren egilea: Jean-Baptiste Dardel

ork(h)ei; ork(h)e; ork(h)ai; ork(h)oi; ork(h)oin:

1-zapataren itxura;

2-itxura, moldea, neurria;

3-enborra non egurra bermatzen den mozteko.

(Erreferentziak: Pierre Lhande eta Resurrección María de Azkueren hiztegiak).

Hazparneko Historia Batzordea ORKEIA dosieren obralari bakarra da.

Batzordearen kideek dossier hau arta handienarekin idatzi dute eta honen edukiaren egitasuna zaindu. Gure iturri guztiak izendatuak dira. Hala ere, dudak eta galdeak baditugu, bereziki agertzen ditugun lantegien sortze eta heste urteetaz. Arras ongi dakigu edozein ikerketa ez dela behin betiko finkatua; hots, gure ikerkuntzen eta aurkikuntzen arabera, datozen argitalpenetan beharrezkoak izanen diren zehaztasun eta zuzenketak plazaratuko ditugu.

Hazparneko Herriko Etxea eskertu nahi dugu eta bereziki Jean-Baptiste Dardel, honek ekarri digun laguntza preziagarriarentzat.

ORKEIA dossierak librokori balia daitezke hezkuntza munduan bai eta bitartekaritza kultural zein turistiko sailetan.

Egilearen baimenik gabe, beste edozein ustiapen debekatua da.

aitzin-solas	4
zapatagintza Hazparnen: ezaupide historikoak	5-8
zurragintza, zerdahori?	9-10
lantegi nagusien eta langile auzoaldean mapak	11-14
industrializazioaren etorrera: familia kontu bat	15
ba ote zenekien?	16-17
artistaren begirada	18
ustiapen pedagogikorako bide batzuk	19
datozen ORKEIA dosieren edukia	20
Hazparneko Historia Batzordea	21
Hazparneko iragan industrialala argitu: erronkak	22

Iraganaz mintzatzea, ongi litzateke jendeen ikusmena irekitzen ahal baginu, zerumuga ireki dezaten eta ez daitezen kokatuak sendi, ez deusak, moda zaharrekoak, eta egia erran, ahalmen itzela badela. Behar duguna da eztabaidatzea, horretaz kontzientzia hartzea.

**Christian Cavalié, enpresaburua,
EDER lantegiaren arrahartzailea eta zuzendaria 1977tik 1992ra**

*Sethentzat, geroa iragana errespetuz atxikitzeko ahalmenean
finkatua zen.*

Toni Morisson, *Beloved*, 1987, Christian Bourgois argitaletxea.


2022ko Hazparnek ez du batere joan den mendeko Hazparneren itxura. Gaur egungo haren biztanle gehienek -gehiago dena, aldi bateko egonaldia egiten duten jendeek edo Hazparne zeharkatzen baizik ez dutenek- nekez irudika dezakete Lapurdi barneko hirixka hori duela zenbait hamarkada oraindik hiri industrial oparoa zela.

Egia erran, zapatagintzako mono-industria horren iraganaz ageriko aztarna guti gelditzen da. Bizi industrial horrek 20. mendeko lehen erdian gorenaldia ezagutu zuen, tokiko biztanleriaren laurdena nonbait han enplegatu zuela 1960 urteak arte. Badirudi denboraldi jori haietako gorabeheren azaltzeak eta ulertzeak gehiegi inarosten dutela oraindik bizi industrial horren porrotak utzi duen zauri intimo zein kolektiboa.

Aitzitik, Hazparneko Historia Batzordeko kideek historia hori molde zorrotzenez bildu eta orainera ekarri behar dela pentsatzen dugu. Batetik, historia hori egin dutenei ezagupena zor diegulako. Bestetik, gizaldi berriei transmititzea garrantzitsua iruditzen zaigu, gaur egungo errealitate sozial, klimatiko eta ekologikoengatik, garapen ekonomikoa, ekoizpen industrial eta lanarekilako harremana handizki galdezkatua den garai honetan.

Badu kasik bi urte Hazparne bi mendez gora moldatu duen zapatagintzaren gai hori funski jorratzen hasiak garela. Memoria horren bilketa jarraitzen dugun artean, gure lehen ikerketen emaitzak zabaldu nahi ditugu. Horretarako, jende gehienari gaika eta molde argienean dossier pedagogiko batzuk zabalduko diogu.

Dokumentu hoiek lehenik ikasleei eta irakasleei zuzenduak zaizkie, baita ere historia aberats horren hobeki ezagutzeaz eta transmititzeaz interesatuak diren guzietan. Lehen epe batean, PDF moduan soilik plazaratuko ditugu, euskaraz eta frantsesez.



Hazparne: landagunean dagoen hiri ttiki bat


Bi elementu bereizgarrik zehazten dute Hazparneko topografia: hiri-erdi bat, eremu aski hertsu batean bizitegi, saltegi eta zerbitzuak biltzen dituen eta hiri-erdi hori inguratzen duen lurralde zabal bat, landagune itxurakoa, herriko auzoaldean kokagune.

Laborantza eta artisautza. Jarduera bikoitza

Itxura hori ikusirik, Ipar Euskal Herriko barnealde osoaren antza, Hazparnen eta bere inguruetan laborantza nagusi zela errex ulertzen da. Baina, 17. mendetik hara, herri hori hiru proto-industriaren bidez garatu zen: oihalgintza, zurragintza eta zapatagintza. XX. mende hasiera arte, artisau moduan egiten ziren jarduera horiek laborantzaren osagarri ziren. Ondorioz, jarduera bikoitza ohikoa zen: Hazparneko biztanleak laborari-ardilarrukin, laborari-zurratzaile edo laborari-zapatari ziren.

Zurragintza edo larrugintza

Ikus zurragintza, zerdahori? dossier honen 9 eta 10.orrietan.



Lordako Garat zurrategira -Zelai auzoa, Hazparnen-ekarri 200 larruen faktura- 1844ko Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.



Hazparneko azken zurrategietarik, 20. mendearen hasieran. Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.

Oihalgintza murriztu bazen 19. mende erditik hara, zurragintza eta zapatagintza arloetan ez zen horrela gertatu. Izan ere, zurragintzaren finkatze eta garapenerako beharrezkoak ziren hiru elementuak bazituen Hazparnek: tanoa, eskualdeko haritz-azalak ematen zuena. Ura, Urtsua menditik bazetozen erreka ugariak eskainirik. Azkenik, behikunde eta ardikundearen hazkuntza. Hots, parte handi batean, larruaren lantzeko beharrezkoa den lehengaia tokiko kabalen larrutik zetorren. Baina, ez zen nahikoa. XVII. mendetik hara, Portugal, Herbehereak, Kanada edo Uruguaitik larrukia sarrarazten zen lekuko beharren asetzeko.

Hazparnen 137 zurratzaile* kondatzen ziren 1804an, 1856an 158, 1881ean 66. Ez ziren 14 baizik 1911ean. 1860-70 urteetatik hara jarduera horrek ezagutu zuen beherakada bi arrazoi nagusik azaltzen dute: alde batetik, oïdium eritasunak eskualdeko haritzak handizki andeatu zituen; bestetik, Hazparneko zurragintza ez zen zurratzeko teknika modernoei egokitu.

19. mendeko bigarren erditik hara, Hazparnen beren lana galdu zuten zurratzaile ainitz Kuba, Mexiko, Argentina edo Txilera joan ziren** eta beren aktibitatea han segitu zuten.

*1804, 1856, 1881 et 1911ko jendetza kondaketaren erregistroak. Hazparneko herri artxiboak.

**BEÑAT ÇUBURU-ITHOROTZ, *Emigrer au Mexique à 15 ans, correspondance de Jean-Baptiste Lissarrague (1902-1906)*, ELKAR argitaletxea, 2020.

Zapatagintza

Zapatagintza zurragintzaren saihetsean naturalki garatu zen. Lanbide hori etxeetan egiten zen, gizon eta emazteak enplegatuz –luzaz haurrak ere– eta laborantzari lansari gehigarri batzuk ekarriz. 1830 urteak arte, zapata ekoizpenak tokiko beharrak eta Hazparneko merkatuarenak estaltzen zituen. Gero handizki emendatu zen, ohizko ekoizpenaz gain zapatalariak armadarentzat larruzko botak eta zapatak egiten hasi baitziren. 1870tik hara, Hazparnen eginak ziren zapatak herritik anitzez urrunago saltzen ziren. XIX. mendearen bukaeran, 1800 bat presunak zapatagintzan lan egiten zuten Hazparnen, Basses-Pyrénées* departamenduan jarduera horretan ari zen langile kopuruaren erdia gutti gora behera.

19. mendearen amaiera: industrializazioa

18. eta 19. mendean izan ziren hiru artisau jardueretatik, zapatagintza baizik ez zen industria heinera heldu eta, laborantzarekin batera, Hazparneko aktibitate nagusia bilakatu zen.

Argindarraren heltzeak eta mekanizazioaren garapenak itxuraldaketa hori handizki ahalbidetu zuten.

Lehen atelierrak 1900 urte hastapenetik sortu ziren. Tokiko zapatalari edo tratulari batzuek eraiki zituzten enpresaburu estatusa beren gain hartuz. Amespil familia** bilakaera horren aitzindari izan zen, bai eta Landarretche, Hiriart-Urruty... Hazparneko familia batzuetan oinarritua zen lekuko nagusigo bat agertu zen.

Geroago, 1930 urteetatik hara, kanpotik etorritako arduradun eta langile aditu batzuk Hazparnen plantatu ziren, ezkontza batzuei esker bereziki -Hiriart-Urruty/ Trolliet lekuko- eta Hazparneko zapatagintza industriaren garapena ahalbidetu zuten.



Salvat Amespil Fils Aîné lantegia (SAFA). 1992an hartu argazkia. Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.



Trolliet anaiak (Ona lantegia). Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.

*Gaurko Pyrénées-Atlantiques departamendua. Izena 1969 urtean aldatua izan zen.

**Ikus dossier honen 15. orrian

20. mendearen lehen erdia: joritasuna



SAFA lantegia. 1916ko argazkia.
Hazparneko herri artxiboak.
Hazparneko Historia Batzordea.



ONA lantegia. Josleen atelierra. 1925 inguruan hartu argazkia.
Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.

Mayi ostataua.
1950 inguruan hartu argazkia.
Hazparneko herri artxiboak.
Hazparneko Historia Batzordea.



Gaurko Xuriatea (beti irekia dena) eta
Chimbalet (gaur hetsia den kafetegia).
1912ko argazkia. Hazparneko herri artxiboak.
Hazparneko Historia Batzordea.

1914-18ko eta 1939-45 urteetako bi gerletako garai dorpeetan aparte, Hazparneko zapata ekoizpena 20. mendearen lehen erdian oparoa izan zen. Orduan, Hazparnek hiri industrial baten itxura zeukan, ONA lantegiko eguneroko lau deiadarrek erritmoa ematen ziotela. Une haietan, hiri erdiko karrketan ehundaka langile ateratzen ziren egunero, bizi sozial azkar baten isla. Horren frogarako, lantegien bidean, hiriko karrika eta auzoetan zegoen ostatu eta kafetegia andana, bereziki gizonen topagune.

Nahiz eta lehen eneguak 1950ko urteetatik hara agertu ziren, garai haietan oraindik hamabost bat lantegi xutik ziren, 1300 bat langile enplegatzen zituztela.

1960tik hara, Hazparneko zapata lantegien egoera okertuz joan zen. Batzuk zerratu ziren, aitzinako hamarkadako langile kopurua kasik erdiratuz. 1963 urteko sei eguneko grebak eta 1967ko maiatzaren 10ko «Hazparne Hiri Hila» egunak ez zuten deus aldatu. Beherakada horren zergati nagusiak ondokoak izan ziren: batetik merkatu handi batzuen galtzea, hala nola Algeriakoa, herri horren independentziako gerlaren testuinguruan, bestetik Asia eskualdeetatik bereziki prezio apalean sartzen ziren zapaten konkurrentzia; herriko lantegien arteko hitzartze eskasa ere izan zen, ahortzi gabe ekoizpenerako lan tresneriaren berritzeko nekezia.



Kanporatzea aitzin abisua errezebitu zuten langileen zerranda. Dokumentuaren zati* bat. Hazparneko herri artxihoak. Hazparneko Historia Batzordea.



Argazkia: Herri Hiri. Herri Hiri astekariaren 1987eko artxihoak.

1980ko lehen urteetan, beste krisaldi nagusiaren garaia izan zen. 1981ean, Trolliet lantegian (ONA zapatak) sei aste greba izan ziren. Bigarren «Hazparne Hiri Hila» eguna gertatu zen 1983ko abendoan. Gertakari horiek ez zuten joairaren norabidea itzulikatu. Zenbat aste barne, berrehun bat langilez goiti kanporatuak izan ziren Hazparneko zapata lantegietan.

Altabada, batzuek ez zuten amore eman. Industrialen elkargo bat muntatu zen, Hazparneko Herriko Etxearen sustenguearekin, honek izenpetu berri zuen Hiri Ertaineko Kontratuaz** baliatuz. Salmenta agente bat hartua izan zen esportazioaren garatzeko, garai batez Zapataren Etxe baten eraikitze asmoa ere izan zen. Egitate guzi hoiei esker, azken enpresaburuek zenbat urte gehiago iraun zuten. Baina ezin geldituzko beherakadak segitu zuen. Luxat azken lantegia Jean Ayçaguerek 1953an sortua- 2004an berriz hartua izan zen eta lau urte beranduago, Beskoitze auzo herriko Mendiko Borda ofiziale eremuan kokatu zen. 2011an zapata egitea gelditu zuen eta beste berrartze kausitu bati esker, luxuzko larrukigintzan jarraitzen du.

Horrela, ohidura luzeko larru lanketak jarraipen bat aurkitu du Hazparneko lurraldean.



*Langileen izenak nahitara ezabatuak izan dira.

**https://www.lemonde.fr/archives/article/1983/06/25/pour-relancer-la-chaussure-d-hasparren-la-municipalite-s-associe-avec-des-industriels_2828526_1819218.html

Definizioa

Zurragintza* deitzen dugun ofizioaren zeregina abereen larruazalaren itxuraldatzea da. Hain zuzen, den bezala, animaleen larruazala usteltzen da, baina zurragintzari esker, ekai hori usteltzen ez den larrua bilakatuko da. Larrua sail askotan erabiltzen da, hala nola, zapatagintzan, eskularrugintzan, larrugintzan, jantzigintzan...

Zurragintzari esker, behi, ardi eta ahuntzen larruazalak lantzen eta ontzen dira, larrua moldatuz.

Zurrategia edo larrukindegia larrua lantzen den lantegia da.



Ohiko haragi-garbigeta. Larruen haragi garbitzaileak. Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.



Hazparne Hazketako auzoan, Chopatey-Beheria etxeke tano dupak. 1990 inguruan hartu argazkia. Hazparneko herri artxiboak. Hazparneko Historia Batzordea.

Landare-zurragintza

Zurragintza mineralak, «kromozkoa» izendatuak, tratamendu kimikoak erabiltzen ditu larruazalaren eraldaketa lasterrago egiteko. Egin-molde horrek ohizkoa handizki ordezkatu du, horrek Hazparneko parte handi batean zurragintzaren desagertzea azaltzen duela.

Baina, landare-zurragintza edo zurragintza naturala gaur egun oraindik praktikatua da, hala nola, Armendaritzeko Lucien Garat & Fils** zurrategian.

Landare-zurragintzaren aldi desberdinak



Larru fresko gazituen erreserba. Garat & Fils zurrategia. Armendaritze.

Larruazalen kontserbaketa

Eraldatuak izateko zurrategietara heltzen diren larruazalak aurretik gazituak dira horien kontserbaketa eta bilketa ahalbidetzeko.

*Zurragintza: larrugintza, larru-apainketa.

**<https://www.tannerie-garat.com>

Zurratuak izan aitzin larruazalen preparakuntza


Zurratua izan aitzin, zurratzaileak erosi duen larruazal landugabea preparatu behar du. Jarduera honi «lbai lana» deitzen zaio, lehengo artisauek ibaietako ura erabiltzen zutelako larruazalen trenpatzeko. Prestakuntza honen aldi nagusiak dira:

–**Trenpatzea**: Larrua berriz ureztatzen da eta zikinkeriak (odol tantak, kaka pikorrak...) bai eta kontserbatzeko baliatua izan den gatza kentzen zaizkio. Horretarako, gurigailu bat erabiltzen da, ardatz huts baten inguruan itzulikatzen den kupela handi baten itxura duena.

–**Ile-kentzea**: Tratamendu batzuei esker, gisuarena bereziki, larmintza -larruazalaren gain zatia- eta ilesak kentzen dira.

–**Haragi-garbitzea**: Tresna zorrotz batzuen laguntzaz, haragiak eta larrubarneari –larruazalaren azpia– lotuak diren urinak kentzen dira. Gaur egun, lan hori makina batzuek egiten dute. Haatik, lehen, xibalet* baten gainean larrua pausatzen zen eta larruen haragi-garbitzaileek borobilak edo erdi-borobilak ziren labana zorrotz batzuk erabiltzen zituzten.

–**Gisu-kentzea**: Gisua kentzen da zurragaien lana errazteko. Lan hori xafarraldi batekin amaitzen da.



Ibai lana. Diderot & d'Alemberten arabera. 1760 inguruan.



Zurratzeko errota.
Garat & Fils zurrategia. Armendaritze.



Zurratzeko erroetatik larruen ateratzea ileak kendu ondoren. Garat & Fils zurrategia. Armendaritze.

Larruaren tratamendua: zurragintza zuzen mintzatuz



Ekai zurratzaileaz betetako dupa.
Garat & Fils zurrategia. Armendaritze.



Airean xukatzen ari diren larruak.
Garat & Fils zurrategia. Armendaritze.

Zurragintza larruazalaren tratatzea da tanoak edo ekai zurratzaileak erabiliz. Jarduera honen bidez, larruazala larru bilakatzen da, ekai malgu eta ustel ezina, urari eta berotasunari ihardokitzen duena.

Landare-zurragintza aspaldiko egin-moldea da. Horretarako, Euskal Herrian, dupa edo hobiak erabiltzen ziren larruazalak metatzeko. Haritz-azal ehotua ematen zen larruazal lerro bakoitzaren artean, hobia urez betetzen eta bi urtez estaltzen. Larru on baten egiteko, denboraldi luzea behar zen.

Gaur egun, beste ekai zurratzaile batzuk baliatzen dira, hala nola gaztainondo zati batzuk eta larruazalak dupetan zut-zuta sartuak dira lau-zazpi hilabeteko epe batez.

*Ikus 9. orrian den irudia.

Datozen hiru orrialdeetan aipatuak eta maparatuak diren lantegien izenek fabrikagunearekin eta gehienetan lantegi horiek sortu zituzten presunekin zerikusi zuzena dute.

Aldiz, azpi honetan agertzen diren lantegietan, ez ditugu aipatzen lantegi horien sortzaileek beren jardura utzi zutenean, garai desberdinetan jarri ziren enpresaburu eta berrartzaileen erreferentziak (Vigié, Carrère, Lavigne, Cavalié, Haristoy-Poueyt, St Esteben...). Beraz, lantegi batzuen kasuan (Ona, Landarretche-Larre, Maillouquet-Diron, Haspar-Chaussures du Midi adibidez), hemen azpimarratzen dugun hestearen data, langune horretan zapatagintzaren ekoiztea bukatu zenekoari dohakio, berrartzaileek lekua erabili zuten denboraldia barne.

Ez ditugu hemen aipatzen ere, artisau edo familia neurriko lantegiak (Duhart, Amestoy...).

Xehetasun horiek publikoari ezagutarazi dizkiogu datozen ORKEIA zenbakien bidez, gure ikerkuntzen emaitzak bildu arau.

LANTEGIAK

- 1 BRECHOIRE-MADRE lantegia 1931tik 1966ra
- 2 TELLECHEA lantegia 1924tik 1986ra
- 3 JANBATTITTENEA lantegia 1910etik à 1990era
- 4 ARY lantegia 1952tik 1987ra
- 5 HAULON lantegia 1908tik 1966ra
- 6 ONA 1910etik 1988ra
- 7 AMESPIL-MONGOUR lantegia 1913tik 1983ra
- 8 LACO lantegia, 1946. 1985tik hara zapatagintegia. Beti konpontze lan batzuk egiten duena.
- 9 LANDERRETCHÉ-LARRE lantegia 1913tik 1987ra*
- 10 SAFA-SALBATENEA lantegia 1884tik 1984ra
- 11 MAILLOUQUET-DIRON lantegia 1960tik 1975ra
- 12 EDER lantegia 1951etik 1996ra
- 13 PATTOTTEA, ONA lantegiaren aitzinekoa 1890etik 1910era
- 14 ORTESENIA lantegia 1900tik 1967era
- 15 ESPIL lantegia 1933tik 1973ra
- 16 AYÇAGUER-LUXAT lantegia 1953tik 2011era. Beskoitzeko Mendiko Borda ofiziale eremuan kokatua 2008an
- 17 JOLIO lantegia 1970tik 1990era. Zaliondoa ofiziale eremuan kokatua 1983an
- 18 BORTEYROU lantegia 1949tik 1987ra. Zaliondoa ofiziale eremuan kokatua 1983an
- 19 HASPAR-CHAUSSURES DU MIDI 1968tik 1992ra. Pignadas ofiziale eremuan kokatua 1971an
- 20 EPIDAURE 64 lantegia (TOLOMEI lantegi multzoa), LUXAT lantegiaren segida 2011tik hara



ARY lehengo lantegia. Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.

Langile auzoaldeak

- A Ona langile auzoaldea
- B La Pensée langile auzoaldea
- C Larre langile auzoaldea
- D Safa langile auzoaldea

*19. mendearen bigarren erdian sortu zen Landarretchea lantegiaren segida hartu zuena.


Gorri markatuak diren datak guti gorabeherakoak dira. Gure ikerkuntzen ondorioen arabera zehaztu beharko dira.

Zenbakiei (lantegiak) eta hizkiei (langile auzoaldeak) esker, mapetan egoitza bakoitzaren tokia aurkituko duzu. 12. eta 13. orrialdeak inprimatu ondoren eta bi orrialdeak elkartuz (12. orria eskuin, 13. orria ezker), A3 formatuko paperean Hazparneko hiri erdian kokatuak ziren lantegi guzrien mapa eskutan izanen duzu.





2008an Luxat lantegia Beskoitzen kokatzen da; 2011tik hara, Tolomei lantegi multzoak arrahartu du (Epidaure 64 lantegia - Luxuzko larrugintza)




Luxat Hazparneko azken zapata lantegiaren kokagunea 2008an.
Gaur egun, luxuzko larrugintzan ari den Tolomei lantegi multzoan den Epidaure 64 lantegiaren egoitza.




Haspar lantegia 1970ko hamarkadaren hasieran plantatu zena.



Borteyrou eta Jolio lantegiak Zalindoa ofiziale eremuan plantatu ziren 1983an, Hazparneko herriak sortu eta haien esku utzi zituen errebo-lantegiguneetan.




Jean Ayçaguerek 1953an sortu zuen Luxat lantegiaren kokagunea.
Luxat izena, bere seme Pierre Ayçaguerek, orduan enpresaren buru zenak 1976an erregistratu zuen.
Horrek lantegia akziodun batzuei utzi zien 2004an.



Hazparneko zapatagintza arloa, ikusmen handiko tokiko familia batzuen eraginez, artisauen lan eremu bizi izatetik industriara pasa zen. Horien artean, 19. mendeko bigarren erditik hara, **Amespil** eta **Landerretche** familiak* aitzindariak izan ziren. Hona azpi honetan epopeia industrial hori argitzen duen organigrama.

industrializazioaren etorrera: familia kontu bat



*iturriak: maiatzaren 2006an Xavier Amespilekin egindako elkarrizketa. Landerretche-Larre lantegiaren historia, Miren Helouk eskainitako dokumentua.

Orkeilatea etxea

Badakizue (ikus 2. orrialdea), Orkeia hitzak zapataren itxura erran nahi du. Hitz hori hartu dugu ere Hazparneko zapatagintzaren historiari buruz sortu dugun dossier sortaren izendatzeko.

Orkeilatea izeneko etxe bat badago Hazparnen. Orkeilatea, orkegilearen etxea edo orkeiak egiten ziren etxea dela pentsa daiteke (orkegilea, zapataren formak egiten dituen).

Hain zuzen, etxe honetan, 19. mendearen amaieran, zenbait denboraz Salvat Amespil eta Joséphine Amespil senar-emazteak bizi izan ziren, Salbatenea etxera joan aitzin eta han SAFA (Salvat Amespil Fils Aîné) lantegia sortu aitzin!



Orkeilatea etxea, Hazparneko Francis Jammes karrikan. Hazparneko Historia Batzordea.

Hazparneko azken orkegilea?

1936ko otsailaren 14ko Euskalduna astekariaren arabera, Hazparneko Jean-Baptiste Etxart orkegilea bere ohean zendu zen. Zapata itxurak egurrez egiten zituen Hazparneko azken orkegilea ote zen? Baliteke, hain zuzen plastikoak pixkanaka egurra ordezkatu baitzuen...

Tanoa egiteko eiherak

20. mendearen hasiera arte, bazebilen eihera andana aurkitzen zen Hazparne zeharkatzen zuten erreka ugarien ibilbidean. Bere bikelta ohargarrian, Günter Felberrek 37 zerrendatu ditu! Horietan, haritzen eta gaztainondoan azala ehotzeko erabiltzen ziren eiherak, lekuko zurrategientzat beharrezkoa zen tanoa egiteko.



Urketako eihera, tanoa egiteko eihera. Günter Felberen bilketa.



Karrikaburuko eihera, tanoa egiteko eihera. Günter Felberen bilketa.

Munichen sortua, badu kasik 50 urte Günter Felberrek Euskal Herria ezagutzen duela. Jatorriz bere emaztea Baionarra da. European, Hego Amerikan, Afrikan, Asian eta Arabiar penintsulan bizi izan ondoren, Hazparnen finkatu dira.

Formakuntzaz geografoa izanik, ibilaldiak, kartografia eta argazkilaritza gustukoak zaizkio eta erretretan sartuz geroztik, Euskal Herriko historiari buruz interesatzen hasi da.

Hazparnen, ikerketak egiteko Historia Batzordearen laguntzaz baliatu da eta horrela zurrategien, zapatagintza industriaren eta eiheren garrantziaz jabetu da. Hilabeteak iragan ditu erreka ertzetan ibiltzen eta herri zabal horretan bihi edo tano eiheren kokapena argitu du.

Interneten* aurki daitekeen dokumentazio batean, bere ikerketen behin-behineko emaitzak aurkeztuak dira. Eihera horien jabeen itzulia egitea eskas da, eihera horien iragana eta Hazparneko auzoen ekonomian eta bizi sozialean izan duten rola hobeki ezagutzeko asmoz.

*<https://sites.google.com/view/hasparren-les-moulins>

André Ayçaguer, Laco izenaz ezagutua, Hazparneko azken zapatagina

Pierre Ayçaguer haren aitak Laco zapata lantegia sortu zuen 1946an, Dibildos karrikan. 23 langileraino enplegatuak izan ziren lantegi horretan.

Lantegia hetsi ondoren, 1985tik hara André semeak zapatagin bezala jarduera segitu zuen. Hain zuzen, Hazparneko azken zapatagin-ofizialea dela erran dezakegu.

Bulta honetan erretretan izan arren, oraindik ere lantxo edo antolaketa batzuen egiteko beti prest da...



André Ayçaguer. LACO zapatagintegia
Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.

Larruaren lantzea beti bizirik Hazparnen

Larruaren lantzeak ez du bakarrik Beskoitzen aurkitu bigarren bizi bat Luxat lantegiaren segida hartu duen Epidaure 64 lantegiaren kokapenarekin. Hazparnen berean, ARANO larruki artisau tailerra* aurkitzen da Ursuia karrikako 66an. Ezpeletako Carriat edo Armendaritzeko Garat zurrategietatik datozen kalitatezko larruak Stéphanie Liebek bere eskuz lantzen ditu. Gauza eder orotarikoak sortzen eta moldatzen ditu, neurria eginak ere. Zurrumurruek diote Hazparneko jende batzuk haren saltegian sartzen direla lehengo lantegien urrina oroitarazten dien larruaren usaina amasteko...



Lehengo zapata lantegi bat? Ez, teileria bat!

Argazki ohargarri honek adierazten duen bezala, 20. mendearen hastapenean teileria bat bazegoen Hazparnen. Minhotz auzoaren sarreran zegoen, Tuturrugainia, Tuturrubeheria eta Alzieta etxeen bisean bis, berantxago ONA langile auzoaldea izanen den gunearen gain partean. Hain zuzen, departamenduaren 10 errepidea eta departamenduaren 21 errepidea lotzen dituen bidea Teileria Bidea deitzen da. Dokumentu arraro honez bestalde, gaur ezer ez dakigu lantegi horretaz. Ikerketa jarraitzen dugu...



Hazparneko teileria. Hazparneko herri artxiboak.
Hazparneko Historia Batzordea.

*<https://www.creation-atelier-cuir.com>

Polo Garat argazkilaria.



Xiberoako Barkoxen sortua, hots Euskal Herriko ekialdeneko probintzian, Polo Garatek* orotara eramaten du munduaren irekiduraz daukan jitezko zentzumenaren. Horren begiari gustatzen zaio Afrikako, Hego Ameriketako,

edo Karibeko zein Kaliforniako lurraldetaraino pausatzea. Hain zuzen, horrela, arbasoen lurrak hobeki berraurkitzen ditu bere artzain, ostaler, ihiztari lagunen ondoan, gizon eta emazte, baina ere zuhaitz, mundrun eta animale, betikotasun sentipen bat ematen diotena (Claude Noriren testuaren zatia).

Tolosako Odessa kolektiboaren kide ko-sortzailea, haren irudiak usu erakutsiak dira Frantzia eta atzerrian.

Polo Garatek 2019tik 2021era Hazparnen iragan den Zapat(h)ari** egitasmoan parte hartu zuen. Bere artista begiradaz ibilbide hori edertu zuen, argazki sentikor eta adierazgarri batzuk eginez, iragan industrial horren galdezkatzera bultzatzen gaituela.



Orkeia dossier bakoitzean, artista bati Hazparneko zapataren historia horrekin oihartzunean sartzeko eskatuko diogu. Hona Polo Garaten lekukotasuna.

*<https://www.pologarat.com>

**Zapat(h)ari proiektu antropologikoa eta artistikoa izan zen, Euskal kultur erakundea eta Giza Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolak antolatua, "Euskal Etnopoloa" labelaren baitan, Clarenza kultura Zentroarekin eta Hazparneko Hiriarekin partaidetzan.

Industria aroa aitzin Hazparnen zeuden hiru artisau jarduerak izendatu.

Hazparneko zapatagintzaren historiaren aldi nagusiak laburbildu.

Zein zen Pyrénées-Atlantiques departamenduaren lehengo izena?

Jarduera-ainitza edo ibilbide profesional batean ofizio desberdinetan jardutea gaur egun usu errealitate bat da. Nozio horiekin zertan zerikusia dauka Hazparneko artisau eta industrial historiak?

ORKEIA dosiereko 7. orrian agertzen diren lantegi barnean hartutako argazkiak ongi begiratu eta iruzkinak egin.

Zerk handizki ordezkatu du landare-zurragintza?

Zurragintza edo larrugintza ofizioa azaldu.

Ba ote zenekike Garat & fils zurrategia mapa batean kokatzen?

Landare-zurragintzaren aldi nagusiak izendatu.

Hazparne hiri erdian zeuden lehengo zapata lantegiak izendatu; gero Hazparneko auzoaldean zeudenak.

Zein izan zen Hazparneko azken zapata lantegia?

Mapan (12-13. orriak) zure ikastegi, kolegio edo lizeotik hurbilen zegoen lantegia aurki ezazu.

Zein auzo herrira lekuz aldatu da?

Hazparneko 4 langile auzoaldeak izendatu eta mapan kokatu.

Zein urtetan zapata egitetik gelditu zen?



Zein lantegik haren segida hartu zuen eta zein ekoizpenerako?

ONA langile auzoaldea. Hazparneko Historia Batzordeko artxiboak.

Lotura bat ikusten ote diozu zapataren industriarekin?

Dokumentu harrigarri batek, 20. mende hasieran Hazparnen zegoen lantegi berezi bat adierazten du. Zer zen ba lantegi hori? Gaurko Hazparneko plano batean kokatu dezakezu?

Zer diozu Polo Garaten argazkietaz? Argazkilari handi horren antza, marrazki edo margo baten bidez Hazparneko iragan industrial horrek pizten dizun sentimendua adieraz ezazu.

Hazparneko garai industrial hori bizi izan zuten zure inguruko presuna batzuen lekukotasunak bil itzazu (hitzak, gauzak, argazkiak...).

ORKEIAren 2. zenbakiko eduki nagusia

Hazparneko Historia Batzordeak urtero ORKEIA dossier bat argitaratzea du helburu. Beherago aurkituko duzu datozen argitalpenetan agertu nahi genituzkeen gaien zerrenda. Erran gabe doa zerrenda hau ez dela osoa. Gure ikerketen aktualitatearen arabera kanbiatzea arriskatzen du. Ez dakigu ere zer ordenatan gai desberdinak tratatuko ditugun.

Hala ere, oraindik erabaki dugu zer izanen den heldu den ORKEIAren gai nagusia: lantegi baten azterketa sakona proposatuko dugu, alde desberdinak aipatuz: bere historia, kokapena, barne antolakuntza eta abar... Landerretchea-Larre lantegia aurkeztuko dugu.



Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.



Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.

3. zenbakitik hara ORKEIA n agertuko ditugun gaiak:



SAFA langile auzoaldea. Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.



AMESPIL/MONGOUR lehengo lantegia. Hazparneko Historia Batzordearen artxiboak.

- Lantegiko ofizio desberdinak.
- Etxebizitza: Langile auzoaldeak – Nagusien bizitegiak.
- Lan baldintzak: hilabete sariak, konbenio kolektiboak, lan antolakuntza, jarduera bikoitza...
- Emazteen papela bizi industrial horretan.
- Borroka sozialak, sindikalismoa.
- Hazparnen ofiziale-zurratzaile izatetik Amerikan larru industrialari izatera.
- Beste zapata zentro industrial handiekin ziren harremanak: Fougères, Romans eta abar...
- Elizaren rol baitezpadakoa hamarkadetan zehar.
- Bizi soziala lanetik kanpo: ostatuak, zinemak, aisialdiak, kirola, kultura...
- Euskararen presentzia lan eremuan eta bizi sozialean.

Hazparneko Historia Batzordea 1987 urtean sortu zen garai hartako Pinatel Jaun auzapezak bultzaturik.



Pierre Ipy.

Pierre Ipyk bere inguruan bildu zituen Emilie Duhour, Jimmy Etcheberry, Marie-Louise Engelhard-Grosjean, Claude Magnin eta Maité Tachaires. Horiek izan ziren Hazparneko Historia Batzordearen sortzaileak. Emilie Duhour eta Claude Magnin goizegi zendu zirela eta, Alexis Bordato taldean sartu zen.

Xutik ezarri bezain laster, Hazparneko Historia Batzordea bi sailetan molde jarraikian lanari lotu zen:

-Hastapenetik 1940 urte arteko herriko artxiboak zerrendatzen, sailkatzen, zaharberritzen;

-Hazparneko iraganaz ikerketa lanak abiatu zituen gai ugari aztertuz, hala nola, etxe zaharrak, pilotari dedikatuak ziren joko eremuak, hezkuntza pribatu zein publikoaren garapena, argindarraren hedatzea, herri administrakuntza, merkatuak...



Bi argitalpenek lan horren berri adierazi zuten, besteak beste tokiko jendeari jakintza horren transmititzeko asmoz:

-Hazparne, iraultza garaian, Hazparneko Historia Batzordeko Marie-Louise Engelhard-Grosjean Andereak idatzitako testua, Société des Sciences, Lettres et Arts de Bayonne erakundearen "Histoire de Bayonne, du Pays basque et du Bas-Adour" agerkarian publikatua 1990 urtean;

-Hazparnetaz soak, Hazparneko Historia Batzordeak egina 1997ko urtean.

2009tik hara, arunt berritu zen Hazparneko Historia Batzordeak sortzaileen ildo segitu zuen. Armand Bidart, Jean Arotcarena, Marie-Jo Delcoigne, Beñat Çuburu-Ithorotz, Marie-Jo Vigié, Mayou Haristoyek lekukoa hartu zuten. Transmisio kezka berdinek bultzaturik, bi argitalpenek ikerketa garai hori markatu zuten:

- *Hazparne, Ondarea eta Pertsonaiak* (2012);
- *Hazparne, Alemanen okopazio garaian* (2017).

(Bi argitalpen horiek frantsesez).



Bestalde, Jean Arotcarenak sortu eta osatu zuen webgune batek urteetan Hazparneko Historia Batzordeak idatzi eta bildutako dokumentu ugari aurkezten ditu. Orrialde horiek gaur egun Hazparne Herriko webgune* ofizialean integratuak dira. Urratsez urrats, hauen aurkezpena berrantolatua eta gaurkotua izanen da eta osoki euskaraz eta frantsesez agertuak izanen dira.



Beñat Çuburu-Ithorotzek 2020an argitaratu zuen libura (ELKAR argitaletxea). Beñat, Hazparneko Historia Batzordearen kide da.



Gaur egun, Armand Bidart, Beñat Çuburu, Marie-Jo Vigié, Xavier Larre, Marie-Françoise Durruty et Txomin Heguyk Hazparneko Historia Batzordea osatzen dute. Badu bi urte Hazparneko industriaren iragana funtsez aztertzeko xedeari lotua dela.

Ezkerretik eskuinera: Armand Bidart, Marie François Durruty, Xavier Larre, Txomin Heguy, Marie-Jo Vigié.
Argazkia: Jean-Baptiste Dardel.



Hazparneko Historia Batzordearekin harremanetan sartzeko:
histoire@ville-hasparren.fr

*<https://hasparren.fr>

Lehengoa ezagutu Gaurkoa ulertu Geroa argitu

2020 urte hasieran, Euskal Kultur Erakundeak bultzatu Zapat(h)ari egitasmoak erabat durduzaturik, Hazparneko Historia Batzordeak zapatagintzak handizki markatu zuen Hazparneko iragan industrialari buruzko funtsezko ikerketa bat abiatzea erabaki zuen. Guti landua izan den gai baten aurrean, gehiegi ez barreatu nahian, horrelako ikerketa batek dituen erronka nagusiak bere egin ditu, hiri kontzeptu giltzarrien inguruan: biltzea, begiratzea, transmititzea.

Hazparneko Herriko Etxearen sustengu eta engaiamenduarekin (ikus bazterrean), memoria horren bilketaren lansail handia hasia dugu. Denbora berean, transmisio arloan, ORKEIA dosierak besteak beste erantzun bat dira.

Azpi honetan den eskemak gogoeta hori laburbiltzen du eta gure desmartzaren helburuak argitzen.



Hazparneko bizi industrialia
19. eta 20. mendeetan

Ikerketaren helburuak

BILTZEA

Lekukotasunak, Artxiboak
Puskak

EGIN-MOLDEAK

Epe laburrean:

- Hazparneko Historia Batzordeak jadanik bilduak dituen dokumentuen inbentario osoa egin.
- Bizirik diren lekukoaren memoria bildu.
- Artxibo pribatuak begiztatu, bildu, zaindu.

Epe ertainean:

- Ikerketa zabaldu (artxibo publiko idatziak, grabatuak, filmatuak, prentsa...); Unibertsitatearekin harremanak finkatu estudiante batzuen mobilizatzeko...
- Fougères, Romans, Saint André de la Marche, Limoges-era... ikerketa hedatu.

BEGIRATZEA

Bilduak diren
dokumentuak zaintzea

EGIN-MOLDEAK

Epe laburrean:

- Hazparneko Eihartzea kultur etxean (dokumentu idatziak).
- Hazparneko gela publikoan (puskak).

Epe ertainean:

Baiona-Euskal Herri Departamendu Artxibategiko egoitzan.

TRANSMITITZEA

Lanen aintzinatzearen arabera ikerketaren lekukotasunak zabaltzea bakoitza Historiaren aktore-resa delako kontzientzia hedatzeko

EGIN-MOLDEAK

Lehen hunki nahi diren publikoak zehaztu:

- Ikasleak, gazteak.
- Publiko orokorra.

Transmisiorako tresnak:

- *Epe laburrean:**
 - Argitalpen pedagogikoak.
 - Historia Batzordearen webgunea arraberritzea.
 - Behin-behineko erakusketak.
- *Epe ertainean:**
 - Totemak hirian.
- *Epe luzean:**
 - Memoria horren interpretazio etxe baten sortzeaz gogoetatzea.